


BERRIGARA


20 zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1991, maiatzak 10



**Amaia
Arantzabal,
Everestera
bidean**



Aitor Zabaleta:
Kotxeak abixadan
gidatzearen plazerra



Kilometroak 91:
Igo itpi tapa
euskararen aldapa



Lete eta Valverde:
Udaberriko azken
emanaldia Bergaran

Autoberezi

FIAT

SERBITZU OFIZIALA

ERAKUSKETA:
Ibargarai 39
BERGARA

TAILERRAK:
Antigua auzoa
ANTZUOLA





Barrenkale, 3 • BERGARA • telf.: 943-765919



Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66

GALDE DEBALDE



MARKOS LABAIEN

Aurreko **GALDE DEBALDEKO** erantzun zuzena **ELORREGI** edo **SAN PRUDENTZIOKO** zubia genuen.

ARGAZKI dendako **SARIA** Markos labaienekirabazi du. Argazki honetan ikusten dugu gure saritua **ARGAZKI DENDAN** sariaia jasotzen.

ZORIONAK irabazleari!

Eta besteok animatu, eta erantzuna eman aste hontako galderari!

ETXEA

Elektragailuak
T.B. - Bideoak - HI FI
Sukaldeko Altzariak

Matxiategi 3, Tfnoa: 76 12 22

Zubikua

JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara
Tfnoa: 760397

Laguntzailea: Bergarako Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkoroberezibar

Erredakzioa:

Jon Andueza. Eneko Azkarate

Maketazioa:

Edure Arenaza. Jon Andueza

Publizitatea eta harpidetzak:

Ignazio Irigoien. Edure Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan
Martin Elexpuru

Kolaboratzaileak: J. Oregi, A.

Urzelai, Mariپی Laskurain, Olaia Inza,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel
Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel
Elkoroberezibar, Josune Iñarra eta
Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga
eta Ainhoa Bikufia

Argazki laborategia: A. Gallastegi,

B. Cantero, M. Leturia, K. Retolaza,
J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.
Tabares, Txomin Retolaza, Kifu eta
Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak Josu Okina

eta Antonio Arrillaga

Inprimetegia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketak: Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 2.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta er-
tzi en erantzunkizunik.



10 OSTIRALA

- **Zinea:** "Despertares" 10.30etan.
- **Kontzertuak:**
- Bergaran: Pelotalekuan, *Antton Valverde* eta *Xabier Lete*. Gaueko 10.30etan.
- Zubiaurren, *Malaña, Desorden* eta *Amonal*. Gaueko 1etan.
- Soraluzen: Gaztetxean *Baldin Bada* eta *Pikutara*. Gaueko 10etan.
- Antzuolan: Gaztetxean *Antiregimen*, *Spok* eta *Kiwak*.. Gaueko 10.30etan.
- Aretxabaletan: Gaztetxean *Quemando Ruedas*. Gaueko 10.30etan.
- **Erakusketak:**
- Migel Okinaren erretratu erakusketa, Kultur Etxean.
- Nahikari tabernan Ricardo A. Elizalderen pintura erakusketa.
- Txamonix tabernan Tourra, Espainiako Buelta eta Euskadiko Biraren argazki erakusketa.
- **Goardiako farmazia:** Mozos (San Pedro).

11 LARUNBATA

- **Zinea:** "Despertares", 5etan, 7.30 eta 10.30etan.
- **Mendi irteera:** Drogaren kontrako ihardunaldien barruan, Gaztetxetik irtengo dira goizeko 9etan.
- **Skate ihardunaldia:** Poligonoan, goizeko 10.30etan hasita.
- **Pilota partiduak:** Frontoian, 4.30etan hasita, honako neurketa hauek ikusteko aukera: *Ansotegi-Maiz II/Sorroa III-Retegi IV*; *Bengoe-txea IV-Errasti / Etxaniz-Zezeaga*; eta ihardunaldia-ekin bukatzeko *Irazola-Buenotxea / Loiar-te-Mendia*.
- **Kontzertuak:**
- Txibiston: *Tahures Zurdos*, 11etan.
- Antzuolan,: 10etan, *Guk* eta *Jo Jo* eta *Ramontxo*.
- Eibarren: *Los Sencillos*, 11etan.
- **Goardiako farmazia:** Camacho (Oxirondon).

12 IGANDEA

- **Zinea:** "Despertares" 5etan, 7.30 eta 10.15etan.
- **Goardiako farmazia:** Camacho (Oxirondo).

13 ASTELEHENA

- **Zinea:** "Despertares", 7.30etan.

- **Goardiako farmazia:** Puy (Barrenkale).

14 ASTEARTEA

- **Goardiako farmazia:** Guallar (San Antonio)

15 ASTEAZKENA

- **Diapoditiba emanaldia:** Kultur Etxean, 7.30etan, Jon Lazkanok Chileko Patagoni-an ateratako diapositibak ikusgai. Debalde.
- **Goardiako farmazia:** Estella (Matxiategi).

16 OSTEGUNA

- **Goardiako farmazia:** Egunez: Mozos (San Pedro) Gaez: Morales (Arrasate).

Aukeran...

- Xabier Lete eta Antton Valverde, ostiralean, 10.30etan frontoian.
- Tahures Zurdosen diska berriaren aurkezpena, Txibiston, larunbatean, 11etan.

MAKAILO
Makailo **ETXEA**
kazuelak

gertatzen ditugu

Ibargarai 15

BRIKOLAIA
AUTOMOZIOA

Turismoak, kamioiak, etab.

Bolu, Tfnoa: 764404 BERGARA



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41
BERGARA

ANDVZV

**ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA**

**Errotuloak, igeltseritza
eta pintura lanak.**

TELLERIKO LANA Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA

KIÑU

ARGAZKINDENDA

ARGAZKILARIAK

**Martxotik aurrera
Barrenkale 35ean**

Tfnoa: 76 58 05
BERGARA



Bideen egoera txarra da

Bide asko daude egoera txarrean Bergaran, baina beste bide batzuk hirugarren mundukoak direla esan daiteke; adibidez, Hazkarruntzetik Ibarra kalera dihoana.

Egoera penagarrian aurkitzen da bide hau, batez ere azkenengo tramoazuloz josia bait dago. Nire ustez bideko zulo haiek zerbaitekin tapatuz gero, zerbait irabaziko lukeela uste dut orain hilik bait dago.

Esandakoa beteko delakoan agurtzen zaituztet.

Axi

Adi irakurle! Hemendik aurrera 4 orrialde gehiago aurkituko dituzu Berrigarren, eta baita noizbehinka zenbait gehigarri ere. Orrialdeak pasa eta segituan konturatuko zara aste honetan bi sail berri jaino zaizkigula, "Lerro gutxitan" eta "Orain badakigu"; eta ez dira bakarrik izango, aurki gehiago izango bait ditugu. **Adio irakurle!**



• ERITETXEAK

Osasun etxea 76 10 82
Larrialdiak 76 12 94
Arrasateko ospitalea 79 53 00

• GURUTZE GORRIA

Bergara 76 55 76

• DYA

Antzuola 76 62 91

• ANBULANTZIAK

Bergaran 76 13 59
Gipuzkoako anbulan. 45 87 44

• SUHILTZAILEAK

Zubillagan 78 28 00

• POLIZIA

Udaltzaingoa 76 14 69
Ertzaintza 76 53 40

• GARRAIOAK

P.E.S.A. 76 16 46
Taxiak 76 19 50

• HIRUGARREN ADINA

Mizpirualde 76 13 68
Aitonak 76 21 40

• BESTELAKO ZERBITZUAK

Udaletxea 76 39 42
Epaitegia 76 14 72
Kiroldedia 76 56 41
Igerilekuak 76 20 51
Kultur Etxea 76 44 46
IMI 76 55 49

Tiira ba!



Josu Okina

□ Natur zientzi museoa Seminarioan

Nere Amaia Laskurain eta Iñaki Irizar bergarar biologoek, Jose Manuel Ojea Arabako Natura Institutuko Zoologia departamentuko arduradunarekin batera, Seminarioko natur zientzietako eskolako materialak berritu, zaindu eta sailkatuko dute.

Udalak milioi t'erdiko aurrekontua onartu du, urteetan zehar gordetako aberastasun hori ahalik eta egoera hobereanean mantendu eta etorkizunean museoa zabaltzeko helburuarekin.

□ Ertzantzak bi gizon atxilotu

Astean zehar, Ertzantzak bi gizon atxilotu ditu Bergaran. Bata, 35 urteko Jose Luis A.G., umeen aurrean exhibizionismoa egiteagatik.

Eta bestea, Fernando P. basauritarra, Anbulategiko mediku bati labainaz eraso egin ziolako. Antza denez erasotzaileak arazo psikologikoak ditu, eta bere garaian, Basauriko eritetxean aipatu medikuaren ardurapean egon zen.



✓ Kilometroak 91 borobiltzen

Albiste ugari sortu dira azken asteotan, urriaren 6an Bergaran antolatuko den *kilometroak 91*ren inguruan.

Alde batetik, aipatu antolatzaileek *Igo tipi-tapa euskararen aldapa* lema aukeratu dutela aurtengo ediziorako.

Aipatu ere dagoeneko Juan Martin Elexpuruk prestatua duela abesti ofizialaren letra. Izaskun Labaienek, bestalde, kantaren musika landu du Rosa Narbaiza eta Jesus Mari

Sagarnaren laguntzaz. Ekainaren lehenengo asterako abestiaren grabaketa kaleratu nahiko lukete. Donostiako Txirula-Mirula estudioetan egingo da, eta antolatzaileen helburua musikaren munduarekin lotura duten ahalik eta bergarar gehienak inplikatzeko da; bai Orfeoiko edota Aritzetako partaideak, baita rock taldeetako kideak ere.

Aurki ekingo diote publizitatea egiteko bideo-klipa filmatzeari ere.

Zuzendaritza Batzordeaz gain, beste hamar komisiok dihardute lanean, guztira ehun lagun inguru. Jo ta ke ari dira zirkuitoa, publizitatea, muntaiak, erosketak, kultura, tabernak, salmentak, trafikoa-aparkalekuak, ikuskizunak eta ekonomia arloak borobiltzen. Pentekostes jaiak pasatu eta gero, dena den, Herri Asanblada egingo da, informazioa eman asmoz.

Gogoratu, azkenik, astelehenean antolatzaileek denda bat ireki zutela Herri Lagunak kalean, Telefonika parean; bertan, *kilometroak 91*ko hainbat produktu aurkituko dituzue salgai: kamiseta, kapela, zinta, insignia, txapa, gerri-poltsa, metxero, motxila, praka-motz edota aterkinak. Denda astegunetan irekiko dute. Setatik 7etara. Abixadan doa, beraz, *Kilometroak 91*, zuzen urriaren 6ra.



✓ Udaleko langileen protesta

ELA, LAB eta CCOO sindikatuen deia jarraituz, Bergarako Udaleko langileek bi orduko geldiekin egin zituzten astelehen eta asteartean, 1991eko komenio laboralaren negoziaketa eskatuz.

Hasieran *Eudelek* dekretuz ezarri nahi zituen igoerak: % 6,5koa soldatetan, eta % 5koa antiguedadeari dagokionean.

Azken orduan, *Eudelek* bere postura birplanteatu du, eta dirudienez komenioa negoziatzera jarriko dira.

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILEA
SUKALDERAKO ALTZARIAK

BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57
BERGARA

ERREKI

ERRETEGIA

TXITXARRO ETA SAIHESKI-JANA
ASTEBUKAERETAN

Fraiskozuri Enparantza
Tfnoa: 76 38 51

BERGARA

MUGIKA

Harategia

Irala 5, Tfnoa: 76 13 00

❑ **1941ean jaiok**

Maiatzaren 25ean, Antxoni Jatetxean elkartuko dira lagunarteko afarian. Joan nahi duenak, deitu 19a baino lehen Jose Ramon Lazkanori (762503) edo Josepi Larrañagari (763524).

❑ **Ludoteka**

Astelehenean inauguratuko da Bergarako Ludoteka; San Martin plazako Aranzadi Ikastolako egoitzaren bigarren solairuan. Dagoeneko, 60 haur inguru apuntatu dira.



✓ **Drogari Buruzko Ihardunaldiak**

Bergarako Gazte Asanbladak eta Drogomenpekotasunen Prebentziorako Udal-Batzordeak antolatuta, astelehenean hasi ziren Gaztetxean Drogari Buruzko Ihardunaldiak. Dagoeneko ekitaldi ugari burutu dira astean zehar.

Astelehen eta asteartean bideo-forumak egin zituzten; *Sid & Nancy*, eta *Meta Final* filmeak eman ziren.

Asteazkenean, *Droga*, gizarteko arazo bat gaiari buruzko mahainguruaren txanda izan genuen; ostegunekoan, berriz, *Toxikomanoaren asistentzia sare publikotik* tratatu zuten. Asteburuan egitarauarekin segituko dute; gaur ostirala, urtxikiteoa egin ondoren, Heroinaren kontrako kontzertua burutuko dute Gaztetxean, gaueko 10.30etan (Angiolillo, NCD eta Daxka taldeekin). Eta larunbaterako, azkenik, mendi-irteera prestatu dute, goizeko 9etan elkartu eta gero.



Tahuresek diska berria aurkeztuko

Larunbat honetan, gaueko 11etan hasita, Iruñiako *Tahures Zurdos* taldea hurbilduko da Txibisto dantzalekura, aurki kaleratuko den *Nieve Negra* diska berria aurkeztu asmoz. *Nieve Negra*, Frantziako Landetan dauden Dumanoir estudioetan grabatu dute EMI etxearen ardurapean, Juan Carlos Perez Itoitz-eko partaide-ohia produktore izan delarik.

Sarrerak, aurrez 700 pzta. eta lehiatilan 800.

❑ **Oñati Irratia**

Bihar, larunbata, goizeko 10etan hasiko den saio bereziak inauguratuko du Oñati Irratia. Udalaren ardurapean, Miren Urkiola arituko da bertan liberatu gisa lanean. Astelehenean ekingo diote eguneroko emisioei, FM 102an, eguerdiko 12etatik 1etara (7etan emanaldia errepikatuz). Etorkizun oparoa opa diogu txantxikuarrek euskara bultzatzeko martxan jarritako egitasmoari.

❑ **Txiste Lehiaketa**

AEEK antolatuta, maiatzaren 27ra arte izango duzue zabalik Deba Garaiko III. Txiste txapelketan parte hartu nahi duzuenok izen emateko epea. Horretarako, jo 797112, 770369 edota 795448 telefonoetara. Txapelketa Arrasateko Amaia antzokian egingo da ekainaren 1ean. 30.000, 20.000 eta 10.000 pzta.ko sariak dituzue zain. Txisteak derrigorrez euskaraz kontatu behar dira.

ARREGI

Eraikuntza
materialeak

Biltegia Teilerian Tfnoa: 76 27 93
Labegaraieta Auzoa

ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak. **Taberna**
Eguneko menua daukagu.

Zubiaurre 22,

Tfnoa: 76 20 19

BERGARA



Tfnoa: 76 38 57
Irala 1

ELADIO
OINETAKOAK

Oinetako konponketa

MATXIATEGI 2,

Tfnoa: 76 54 60

BERGARA





X. Lete eta A. Valverde ostiralean

Ostiral honetan, maiatzak 10, Xabier Lete eta Antton Valverderen emanaldia izango dugu Bergarako frontoian, gaueko 10.30etan hasita.

Biak ere aski ezagunak ditugu euskal kantagintzaren munduan.

Xabier Lete 1944ean jaio zen Oiartzunen. Idazle eta poeta, 1966an *Ez dok Amairu* taldean integratu zen 1971an taldea desagertu arte. Bere lehenengo diska 1968an argitaratu zuen.

Ordutik, 12 diskaren grabaketan parte hartu du.

Antton Valverde 1943an etorri zen mundura Donostian. Piano, armonia eta konposaketa ikasketak burutu zituen Donostiako Musika Kontserbategian. 1970ean hasi zen kantatzen, eta urte berean kaleratu zuen bere lehenengo diska. Guztira 10 diskatan hartu du parte. 70ko

hamarkadaren hasieran *Oskarbi* taldean jardun zuen.

Xabier eta Antton; Antton eta Xabier. 1974. urtea ezkeroztik, elkarrekin ibili dira beti kantuan.

78an eszenarioetatik desagertu ziren biak, ekintza puntaletan aritu zirelarik bakarrik.

Birragarpen ofiziala 1990. urtean izan genuen, Durangoko Azokako kantaldian.

Aukera ederra ostiralekoa, bi artista hauek gaur egun eskaini dezaketena hurbiletik ikusi eta ezagutzeko. Udaberrian emango duten azken kontzertua izango da, gainera.

Jardun Elkarteak eta Euskadi Irratiak antolatuta; sarrerak, aurrez 800, eta lehiatilan 1.000 pzta.

Alcalara martxa

Larunbat honetan, gaueko 12.30etan irtengo da frontoitik Alcalako espetze militarera joateko autobusa. Helburua, atxilotuta dauden insumisoei solidaritatea adieraztea.

Herri Urrats

Igandean, Aranzadi Ikastolak eta Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatuta, autobusak irtengo dira Senperen ospatuko den Herri Urrats, Iparraldeko Ikastolen aldeko jaira joateko.



Asentzio jaiak Zubiaurren

Atzo hasi ziren Zubiaurren aurtengo Asentzio jaiak. Gaur, ostirala, 7etan buruhandiak, 10etan su-haundiak, eta 11etan rock jaialdia (*Malaña*, *Desorden* eta *Amonal*) izango ditugu. Larunbatean, goizeko 10etan ekingo diote 12 urtetik behar-koen marrazki txapelketari. Eguerdian, auzoko jubilatuen bazkaria egingo da. Arratsaldean, berriz, mus eta futbolin txapelketak, ume-jolasak, buruhandiak eta kalejira izango ditugu aukeran. Gaueko 11etan, dantzaldia. Eta goizaldeko 3retan, kantzontzilo eta kulero lasterketa gau-txorientzat. Igandean, azkenik, 9.30etan txokolatea gosaldia eta gero San Migeleko ermitara igoera egingo da, 11etan Aritzeta abesbatzak alaitutako meza entzun asmoz. Ondoren, dantzari eta soinu-joleak; eta arratsaldean, tute txapelketa eta haur-jolasak. Ondo ibili eta gutxi gastau!

IBARGUREN PENTSUAK

" BIONA " PENTSUEN BILTEGIA, " BIOTER "

PRODUKTOAK ETA HAZIAK

SAN PEDRO 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

KABIA

Erretegia -taberna


Zubiaurre 23 - Tfnoa: 76 23 08
BERGARA

BERROYA, E. A.

INPRENTA

OFFSET - TIPOGRAFIA
ENKUADERNAZIOA

Komenio 2
Tfnoa: 76 00 01 BERGARA



Amaia Arantzabal

Everesteko gailurraren bila

Amaia Arantzabal 27 urteko bergararra. Zubittan jaioa, Azpeitian bizi da. Bilbon egin zituen biologia ikasketak. 1986.ean lizentziatu eta harrezkeroztik Hondarribiako institutuan ari da Natur Zientziak irakasten. «Azpeitia-Everest 91» espedizioaren barruan, munduko gailurrik altuenera dijoan lehen emakume gipuzkoarra da. Berarekin eta espedizioaren buru den Josu Bereziartua azpeitiarrarekin elkartu gara. Amaia, solaskide. Josu, bere alboan ixilik, une batzuetan elkarrizketan parte hartu duen arren.

□ **Nondik datorkizu mendian-zaletasuna?**

Etiket. Igandero txikitatik gurasoak eta bost anai-arrebako tropelak, inguruetako mendietara ibilaldiak egiten genituen. Nik mendira joaten jarraitu egin dut, anai-arrebek utzi duten bitartean. Poliki poliki ikusten duzu mendiak ez direla hemen akabatzen, eta gero eta urri-nago joaten zara... Bazterrak ezagutzeko modu polita da, kultura ezberdinak ezagutzeko aukera ederra ematen dizu.


□ **Ezberdintasunik badago mendigoizalearen eta nolabait esateko, igandeko mendizalearen artean?**

Ez dira berdinak, noski, baina honekin ez dut esan nahi, era bateko irteerak ba-

karririk egiten ditudala. Jarraitzen dugu betiko irteerak egiten, Aizkorrira edo Txindokira esaterako. Gertatzen da, gero eta toki zailagoetara zoazela; zerbait gehiago, satisfazio, zailtasun gehiago bilatzen duzu mendian eta horregaitik goimendietara joaten zara.

□ **Goimendietan ibiltzeak prestaketa berezi bat eskatuko du. Nolako entrenamenduak egiten dituzue?**

Fisiko aldetik, fondoa asko landu behar bada ere, teknika ez da ahaztu behar, gehien bat izotzeko teknika. Pentsa, tarteka, izotzeko paretak ere igo behar direla..., hortarako neguan, pirineotan korredoreak egiten ibiltzen gara. Horrez gain fondoa: bizikletan, korrika... Bestalde,



ez dugu dieta berezirik egiten, pertsona normal batek jan dezakeena jaten dugu.

□ **Menditik bizitzerik badaukazue? profesionalizatea alegia?**

Euskal Herrian ezin daiteke horrelakorik pentsatu ere egin. Dakidanez, ez da Euskal Herrian menditik inor bizi. Frantzia behar bada... Gainera ez da hori nire helburua. Zuk, behar bada, inoiz pentsatu duzu hemendik bizitzea? -alboan daukan Josu Bereziartua lagunari begiratzetan dio-. Profesional bihurtzean, mendiaren menpe zaude, behar bat bihurtzen da. Gure satisfazioa bilatzen dugu mendira goazenean. Ez zait burutik pasatu ere egin, jendea zeure kargu hartu eta igoera bat egitea. Mendi lanbidetzat hartzea ez nuke nahi.

Bizitzeko fundizio batera

joan behar banu..., aukeran emango balidate, fundizioa edo mendira joan, bigarrena hartuko nuke.

□ **Abuztuan abiatuko zarete Nepaleruntz. Oporrak aprobetxatzearen zoazte garai horretan?**

Ez. Gehienbat hango eguraldia kontutan hartuta. Han abuztuan monzoipean daude, baina guri, eguraldi ona hasten denerako mendian egotea komeni zaigu. Horregatik abuztuan, naiz eta euripean, gerturatze ibilaldia egitea komeni zaigun, irail bukaerarako tontorrera heltzeko ahaleginak egingo ditugu. Horrelako irteerak, normalean, hiru hilabeterako izaten dira. Urriaren lehen egunetarako etxean egongo gara gauzak ondo badoaz.

□ **Everestera zoazen lehen neska gipuzkoarra zara...**

JAUJA KIROLAK

Mendirako eta eskaladarako materiala
Kirol mota guztietarako materiala

Irizar Ibilbidea Tfnoa: 76 14 95 BERGARA



Amaia Arantzabal, azpeitiar espedizioarekin, Bergararik Everestera

Bai. Lehenago napar bat, Trini Cornellana, espainiar espedizio batekin joan zen. Dena den ez zuen gaina zapaldu.

□ Gailurrera heltzeko aukerarik badituzu?

Ni ez banaiz, taldekoren batek lortuko du. Espedizio-lari guztiok ditugu aukerak. Aldez aurretik ez dugu inolako lan banaketarik egin. Edozeinek zapaldu dezake tontorra. Gero bertan ikusiko danor dagoen indartsuen, nor den egokiena azken zatia egiteko. Gainera ez dira aukera asko izaten, horregatik denak aprobeixatu behar dira. Indartsuen dagoenak egingo du azken saioa. Argi daukat taldean ni baino indartsuagoak badaudela baina...

□ Dena den indarrak badi bere alde fisikoa eta psikikoa ere.

Biak hartu behar dira kontutan. Orain medikuarekin probak egin ditugu, eta behar bada une hauetan indartsuen dagoena, mendian ez da egoera berean egongo,

agian sikologikoki ahulagoa delako edo ez delako egoerari aurre egiteko gai.

□ Zergatik hain emakuek?

me mendigoizale gutxi?

Ba ez dakit. Mendizale gutxi gara, beraz normala da espedizioetara doazenak ere gutxi izatea. Kirol guztietan gara gutxiago. Zergatia ez dakit. Egia da mendian, adibidez, oso garrantzitsua dela erresistentzia, eta emakumeok gizonen baino erresistentzia txikiagoa daukagu.

Bestalde, espedizio bat aurrera eramatea ez da batere erraza, gizon batentzat ezta emakume batentzat ere.

□ Himalayan lehenago ibilia zara?

1988an Azpeitiako espedizioarekin Yalung Kang In-

dia aldeko Himalayan izan nintzen. Josu iaz Euskal espedizioarekin Everestera joan zen. Ez ziren ohizko bidetik igo eta tontorra zapalzerik ez zuten izan.

□ Goimendietan arriskuak ugariak dira...

Bai peligroa beti dago. Everestarako igoeraren lehen zatian, esaterako, elur-jausiak sarritan gertatzen dira, oso arriskutsua izaten da. Baina gure esku ez dauden usteka-beak dira. Dena den, arreta haundiz ibili behar da.

□ Kontalguzu Amala, mendian gertatu zalzun gauzarik politena.

Himalayako NUN mendian maldan gora nindoala sentitu nuena..., ez dago kontatzerik. Malda gogor haiek sortarazten zuten altuera sensazioa ikaragarria zen benetan.

□ Eta ezbeharrak ere izango zenuen...

Sustoak asko izan ditut. Behar bada ondorio txarrenak sortarazi zizkidatenak, Pirineotan, Teleran, duela sei urte ezusteko batek, ezkoa izoztuta utzi zidan. Harrezkero bi hatzamar haundituta dauzkat.

□ Medikuri badaramazue espedizioan?

Ez. Egia esan, mediku batek altuera haietan ez dauka gauza asko egiterik. Ondoz bat sentitu ezkeroko egokiena altueraz jeistea da. Medikua-ren lana alperrikakoa da, zortzi mila metrotara medikamentuek izan dezaketeneragina ikertu gabe dago.

Pol-Pol, Bergarako mendizaletasunaren sustraia

Begarako Pol-Pol mendizale taldea duela 49 urte sortu zen, datorren urtean, beraz, urrezko eztaiak ospatuko ditu. Mendizale bergararren txokoak, 1.600 bazkide inguru ditu gaur egun. Urtean zehar antolatzen dituen iharduere artean (Eskalada ikastaroak, proiektzioak, skia, pirineotara irteerak; Argazki ikastaroak, lehiaketak eta erakusketak...), aipamen berezia merezi dute, Gaztetxo (10-14 urte) eta Gazte (15-18) taldeek hamabostean behin egiten dituzten mendi irteerak. Duela lau urte gutxiago baziren ere, aurten 100 neska-mutiko inguru biltzen dira Pol-Polarekin mendira joateko hala ere, askoz gehiago ziren duela hamabost urte, eta Amaiak zera dio: »gure gazte denborako mendi irteerak..., garai haiek, ez dira berriz ere errepikatuko.

Orain, gazteek, badaukate igandea pasatzeko beste modurik, modu ugari».

Mendizaletasuna, bergararren artean haundia bada ere, goimenditan ibiltzen direnak ez dira asko gure herrian. Ion Lazkano, Amaia Arantzabal, Ion Lasa..., izen batzuk aipatzearen. Ezin ahaztu gainera, aurten Himalaya aldera abiatuko den beste beragarar bat, Joseba Egibar.

Atxabaltar espedizioarekin Makalura joango da abuztuan.

GIARTZU

(M. Isabel Hurlado)

DERMOESTETIKA OSOKO ZENTROA

Laser izpien bidezko errekupeazioa
Errekupeagailu elektrikoa
Korronte kapazitiboak

Estetika Tratamenduak
Larruazal garbiketak
Kosmetika Espezializatua

Boni Laskurain 3, Etxabea Tfnoa: 76 35 71 BERGARA

Beheko

Taberna

**Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

□ **Janari berezirik eramango duzue? Pastilak, bitaminak eta horrelakoak?**

Frantses edo Amerikanoek, behar bada eramango badute ere, guk ez.

Pentsa, han egoera nahiko txarrean egongo gara, eta jatea satisfazio bat izan badaitke, nahiago dugu, gaztaia edo txokolatea, hau da, gustatzen zaizkigun janariak ahora eramatea, pastilla konzentratuak baino. Gainera, esaten dutenez, ez da gehiegi jaten zazpi mila metrotara zaudenean. Gehien bat edan egiten da, zopa, tea, isostar eta horrelakoak.



□ **Oxigenorik eramango duzue?**

Bai, espedizio inork, Josuk ezik, orainarte erabili ez dugun arren. Beste zortzi milakoetan beharrezkoa ez bada ere, Everesten komenigarria da.

□ **Merito gehiago al dauka oxigeno barik igotzeak?**

Zenbat eta garbiago igo beti da hobe, merito handiagoa du. Paretak eskalazterakoan ere, zenbat eta tresna gutxiago erabili, politagoa da. Zeure buruari nola-

ko metak jartzen dizkiozun, hori baloratu behar duzu. Nola edo hala igotzea baldin bada, ados, baina helburu gogorragoak jartzen badizkiozu zeure buruari...


(Josuk eztabaida honetan parte hartu nahi du)

- Hala ere uste dut erraz hitzegiten dela. Norberak ikusi beharko luke, nola nahi duen igotzea. Everest gainera oxigenorik gabe igotzea badago, hori argi dago. Bainan merezi du? Izoztuta geratzea merezi du? Gehiegi arriskatzea da. Igota ere, jeisteko oxigenoa erabili behar duzu, eta gainera jelatuta geratzeko posibilitate handiak dituzu. Egia da, mendigoizale eliteak, gehiago baloratzen duela oxigeno gabe igotzea, esfortzu handiagoa delako.

- Konpetibitatea gero eta gehiago sartzen ari da alpinismoan ere. Lehen tontorra zapaltzea zen bakarrik. Gaur egun, gehiago arriskatzen da, gauza berriak bilatzen dira.

□ **Everest munduko gailurrik altuena bada ere, egongo dira zailagoak edo politagoak. Baina, Everestera joateak oihartzun handiagoa sortarazten du. Horregatik erabaki zenuten hara joatea?**

Esan daiteke baietz. Hemen ezagunena Everest da eta edozeini Himalayara zoazela esaterakoan, Everestera zoazela uste du. Gainera komertzialagoa da, instituzioetatik dirua errazago lortu daiteke.



Gorlatik Everesteraera

Amajari txikitatik datorkio mendian ibiltzeko zaletasuna, guraso eta anai-arrebek, Gorla, Irimo, Hirutontorreta..., eta inguruetako mendietatik egiten zituzten ibilaldietatik. Pol Polarekin Pirineotara, Alpeetara..., poliki poliki zaletasuna haundituz zihoan heinean espedizio serioagoetan parte hartzen hasi zen.

Aconcagua, Himalayako Nun... Azkenean, mendigoizale batek izan dezakeen ametsik ederrena errealitate bihurtu zaio; munduko gailurrik altuena zapaltzeko aukera. «Azpeitia Everest 91 espedizioa» duela bi urte hasi zen gauzatzen, beharrezko diren baimen guztiak lortu eta gero. 15 milioitako aurrekontua du espedizioak. Hauetatik 10, Jaurlaritzak, Gipuzkoako Diputazioak eta Azpeitiako Udalak ordainduko dute. Beste bostak euren aldetik atera behar: kamisetak edo errifak salduz, taberna jarriz... Taldea, zortzi mendizale eta bost sherpaz osatuko da, erdipisuko espedizio kontsidera genezake.

Abuztuaren 1ean abiatuko dira Azpeitiatik. Sondikan abioia hartu eta abuztuaren 3rako Kathmandun izango dira. Han beharrezko tramiteak egin ondoren, 9an, gure zortzi espedizioilariak, 150 porteadorekin batera 4000 kilo material eta janari eramango dituztelarik, hasierako kanpamendura gerturatuko dira. Abuztuaren 25erako oinarri kanpamenduan ezarriko dira. Han hogeitau egun egingo dituzte bidea ekipatzen. Irailaren 15etik urriaren 10era tontorrerako saioa egingo dute. Beraz suerte pixkatekin, urriaren erdialderako Everesteko gailurrean izango ditugu (8.848 m). Azaroaren 1erako Euskadira itzultzeko asmoa dute.



BOLINTXO

Kirola egiteko behar den guztia

Ibargarai 10, Tfnoa: 76 38 32 BERGARA



Aitor Zabaleta Kotxeak abixadan gidatzearen plazerra

Aitor zabaleta, 28 urtw, bergarra.
1988,89 eta 90ean Euskadiko Mendi Txapelduna izan
genuen.

Duela hiru urte Espainiako Txapelketan 3.;joan zen
urtean 2. "Eta aurten Espainiako txapeldun".

Gutxi-gora-behera 50 proba irabazi ditu kotxeen
munduan hasi zenetik.

Zer gehiago esan dezakegu Aitorri buruz? Gauza
asko, asko. Irakurri bestela ondorengo solasaldia.

Noiz eta nola heldu zi-
nen kotxeen mundura?

Txikitatik eduki nuen zi-
rrara hori. Gogoratzen dut
Mobylette-ekin hasi nintzela,
lagunekin, motorrak trukatu

eta Institutuko garaian gure
arteko kompetizioak egiten
ibiltzen ginen.

17 urte nituela Aitor Li-
nazisororen tailerrera joan
nintzen. Garai haietan Aitor

Simca batekin ibiltzen zen
probarik proba.

Nik Seat 850 bat neukan
orduan, baina problemak
besterik ez zizkidan ematen.

Halako batean *Simca* bat
jarri zuten salgai. Etxean
neukan guztia saldu eta hura
erosi nuen.

Gutxika-gutxika, Aitor
Linazisororekin karrera guz-
tietara joaten hasi nintzen,
ikusi eta laguntzera; eta nos-
ki, *pikea* sartu zitzaidan.

Neuzkan xoxa guztiak
kotxean inbertitzen nituen,
eta Aitorrek utzitako piezak
aprobetxatuz, nere *Simca*
prestatzeari ekin nion.

Haiek ziren egunak, ha-
iek. Zenbat aldiz egin behar
izan genien hanka Goardia
Zibilei...

18 urterekin karneta atera,
eta handik lau hilabetetara
korritu nuen lehenengo aldiz,
Urrakiko igoeran.

Etxean ez zidaten laga-
tzen, eta ezer esan barik joan
nintzen. Kotxea prestatu be-
harra neukan: barrak jarri,
arrisku gerrikoa... baina kla-
ro, hori etxean eginez gero
amak segituan igerriko zituen
nire asmoak.

Orduan zer egin nuen?
Dena prestatuta utzi, baina
montatu gabe.

Amari gezurra esan nion,
Aitor Linazisorori laguntzera
joan behar nuela.

Igande goizean, Urrakira
joan baino ordu batzuk lehe-
nago, Gorlara bidean gelditu
eta hantxe prestatu nuen ko-
txea.

Total, Urrakira joan, ko-

rritu, eta hiru kopa irabazi
nituen. Etxera itzultzerakoan,
ama harrituta, nondik atera
ote nituen kopa haiek. Eta
nik berriro gezurra, Aitor Li-
nazisorok eman zizkidala.

Hurrengo egunean, ama
haserre: *atzo zertan ibili hin-
tzen?*

Itxura denez, bere lagun
batek gertatutakoa entzun eta
amari komentatu zion.

Amak ezetz; nik ez nuela
korritu gero, Linazisorori la-
guntzera joan nintzela.

Eta besteak erre ke erre,
baietz, korritu egin nuela,
bere semeak ikusi ninduela
eta.

Azkenian ama konben-
tzitu, eta hura iskanbila etxera
heldu nintzanean!!

Halaxe, halaxe hasi nin-
tzen mundu honetan.



Nola aldatu diren gau-
zak...

Bai horixe. Dena den, ez
da jendeak uste bezain bizi-
modu erraza.


Kotxearen mundua ga-
restia da oso. Jakingo baze-
nute zer puntutaraino impli-
katu ditudan lagunak, fami-
lixia... inguruko guztien di-
ruak nere kotxean enpeña-
tuta...

Poliki-poliki aurrera egin
dugu. Bergarako Lazpiur en-
presak ikaragarri lagundu dit,
kotxeen munduan zerbait
izatera heldu baldin banaiz

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE



TXORNO
AUTO-REKANBIOAK


Ibargarai 33, Tfnoa: 76 29 95 BERGARA

eurei esker izan da. Gero Krafft agertu zen, gero EMEC... eta gaur arte.

□ Buruhaustea ere ugari, ezta?


Nekeza da esplikatzeko zenbat sufritzen den kotxe barruan, eta batez ere zenbat sufritzen den kotxetik kanpo.

Askotan sinpleena probak korritzea da. Eta ez da hain sinplea; mendi karrerak automobilismoaren 100 metro lisoak dira. Ez dakizu zer moduz zoazen, zenbagarren postuan; ez daukazu inolako erreferentziarik, eta beti limitera joan beharra dago. Besteak % 110ean badoaz, zu % 111ean joan behar duzu irabazteko. Arriskatu egin



behar da, asko, eta hori gure kontra bihurtzen da azkenean. Gainera, batzuek jositako eta inolako ziurtasunik gabeko errepideetan aritzen gara.

Baina esaten dizut, askotan sinpleena gidatzea da. Kotxeari kolpe bat eman eta zerbait izorratzen duzunean... arazo mordoa planteatzen dira. Dirurik ez, eta milioi ta piku pzta.ko konponketa egin behar, adibidez. Hasi telefono deiak egiten. Honi, hari, besteari... eta batek ezetz, besteak datorren astean joateko, eta hirugarrenak akaso datorren urtean



lagunduko dizula. Hori ez da jiria!!

Izugarrizko presioa sentitzen duzu. Mailaz igotzea nahi, baina ezin duzu arriskatu, ez zaude lasai, behar

bezala; beti beldurrez, kolpe bat hartuz gero denboraldia amaitu daitekeela pentsatzen... eta mentalitate horrekin ez dago ezer egiterik.

Gainera, sarritan astoke-

riak egiten dituzu, atentzioa deitu eta esponsoreak erakartzeko.

Dirua badaukazu lasai iretzen zara, beharrezkoak diren errebisioak eginda, errubera berriekin... istripua izanda ere badakizu hurrengo probarako konpondua egongo dela.

Dirua, dirua, dirua... sekulako burukominak ematen dizkizu, bai.

Aitor eta bere makina

Aitorren barketa Lola etxekoa dugu, ingelesa.

5 metro luze eta bi zabal.

Txasisa ingelesa da, dena aluminio eta tuboz egina.

10.000 errematxe dauzka.

Makinak 600 kilo eta 310 zaldiko potentzia dauka.

Martxei dagokionean, aipatu primeran 100 km/orduko hartzen dituela, eta hortik aurrera, nahi den guztia.

Aitorrek 270 km/o abiadura hartu izan du konpetizioan.

Zenbateraino hel daitekeen? Auskalo!

Motorra BMW etxekoa dugu. 5-6 milioi pzta. balio ditu, eta urtetik urtera aldatu behar izaten da.

4 erruberak 170.000 pzta. kostatzen zaizkio, eta dirua edukiz gero karrera bakoitzaren ondoren aldatzen dira. 4 pistoi daramatza errubera bakoitzean.

Frenoak, trita-metalezkoak.

Deposituan 12 litro gasolina kabitzen dira.

Ekipo osoa (kotxea, kamioia, piezak, erropak...) 15.000 milioi pzta.ko aurrekontua dauka.

□ Alde horretatik Aitor, hau da, esponsorizazioaren aldetik, zer moduz doakizu aurtengo denboraldia?

Joan zen urtean laguntza ona jaso nuen; behintzat denboraldia bukatzeko lain eduki nuen.

Krafft-ek aurtun laguntza gehiago izango nuela prometitua zidan, eta ikaragarriko ilusioa sentitu nuen.

Golkoko gerra puta horrek, ordea, plan guztiak ber-

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak, pinturaz zein pintu gabe.
Fatxadak, eskaparateak, ibilgailuak, lonetak,...

Amillaga
(gasolinera ondoan)
Tfnoa: 76 57 34
BERGARA



tanbehera utzi ditu. Bai ni, bai Andres, eta bai auto eta motorren munduan dabilen jendea olio, gasolina, eta halako etxeetatik bizi izan gara orain arte, eta klaro, gerraren ondorioz etxe horiek porrot egin dutē, eta porrotaren ondorioz publizidadeko aurreakontuak murriztu egin dituzte.

Horrek akabatu egin gaitu.

Esaten dizut, sekulako ilusioa neukan denboraldi honetarako, baina... Kraffte-ek atzera egin du, eta joditu egin naute. Eman didaten apurrarekin, Lazpiurrekin eta EMEC-ekin... horrekin segitu behar.

Orain zoratuta nabil, ea denboraldia amaitzeko dirua nondik atera dezakedan!

Arazo guzti horiek tartean daudela, nondik ateratzen dituzu jarraitzeko go-

goak?

Zaletasuna, mutil; izugarriko zaletasuna!

Droga bezala da; edo adibidez, tabakoa bezala, beti laga egin behar duzula pentsatzen, laga egin behar duzula... baina goizean ohetik altxatu eta egiten duzun lehenengo gauza zigarro bat erretzea da.

Kotxeekin berdin. Ez dakit nondik, baina beti ateratzen duzu indarra.

Zer dauka Bergarak, Aitor, bai kotxe eta bai motorren munduan hainbeste lagun mugitzeko?

Nik uste zaletasun hori aspalditik datorrela. Agustin Lazpiur, Berasategi... garai haietan oso inportanteak ziren motorren munduan. Saltsa berezia sortzen hasi zen. Aitor Linazisoro, Angelito Bideluze, Elizburu anaiak, etab.ek ere moto-krossari

ekin zioten.

Gero, motorrak laga eta Aitor eta Angelito, adibidez, kotxeekin hasi ziren. Gero neu heldu nintzen. Gero Egaña. Hor dago Pablo Irizarrek joan den urtean egindako denboraldi ikaragarria ere.

Nahita nahiez guztion artean jendea mundu honetara erakarri dugu, eta giro aproposa sortu da Bergaran.

Entrenamentuak, Aitor. Nola prestatzen duzu

zeure burua?

Gehiago entrenatuko banu, hobeto. Baina egun guztia telefonoan pasatzen dut, hau edo hura konbenzitzen, beti liauta. Libre nagoenean ba gimnasia joan, mendira irten, edo mendi-bizikletan ibiltzen naiz.

Kotxean ia ez dut entrenatzen, akaso konponketaren bat egin ondoren, ondo gelditu den jakiteko. Bestela, gauza gutxi.

Gainera hor egoten dira

Igandean Jaizkibelera

Datorren igandean korrituko da Jaizkibeleko Igoera. Aurten Europako Mendi Txapelketarako baliogarria izango da, eta igerra egin da hori, bai horixe! Hantxe izango ditugu irteeran piloturik haundienak.

Batetik Andres Vilariño, Jaizkibel inork ez bezala ezagutzen duen gizona, Europako Txapeladuna. Berari aurre egiteko prest D'Arbelay suitzarra, Stenger alemaniarra, Pedraza Austriarra, edota Regosa italiarraren mailako gidariak etorriko dira. Guztiek ere Europako Txapelketarako emango diren puntuak bilatuko dituzte, amorruez.

Bigarren multzo batean, Espainiako Mendi Txapelketarako aspiranteak ditugu. Zabaleta eta Butenhoff, gaur egun sailkapen horretan lider direnak. Climent, Vinyes edota Luis Martinez, postuak hobetzeko gogo bizian.

Gizon asko. Pilotu asko eta oso onak. Azkenean, ordea, batek bakarrik eskuratuko du Txapela. Aitorrek Bergarara ekarriko ote digu?

"Gustatuko litzaidake, bai. Ea eguraldi txarrak jarraitzen duen igandera arte. Euria diharduenean hobeto moldaizen naiz; murriztu egiten dira kotxeen arteko potentzia ezberdintasunak eta ondorioz, aukera gehiago izan ditzaket Vilariño, D'Arbelay, etab. en makinaren kontra aritzeko".

Ea ba, Aitor; ea igandean euria egiten duen. *Que llueva, que llueva, la virgen de la cueva...*



KORTA-ZAR

Txokolategia

Pintxo eta ogibitartekoan
espezialitatea

Barrenkale 16, Tfnoa; 76 20 62

AGOITZ

TAPIZDENDA

San Lorentzo 25 Tfnoa: 76 11 58
BERGARA

Hertzainak zain, eta badaezpada... ariketa fisikoak egitera limitatzen naiz.

Goi-mallan egoteko, Aitor, zenbaterainoko garrantzia dauka kotxeak, eta zenbaterainokoa pilotuak?

Erdi eta erdi. Nahiz eta kotxe ederra eduki, pilotuak ez badu balio jai dago! Baina munduko gidaririk onenari 600 bat ematen badiozu ere, ez du ezer egingo.

Karreran murgilduta zoazela, zer arralo pasatzen zaizu burutik?

Astokeriak, astokeriak bururatzen zaizkizu. Erruberraren bat, edo bestelako piezaren bat hautsiz gero akabatu egingo zarela pentsatzen duzu. Halakoetan, instintuz azeleradorea zertxobait soltatzten duzu... baina handik gutxira paso egin, eta proba irabazi behar duzula sentitzen duzu berriro.


Nola prestatzen duzu karrera bat?

Aurrez zirkuitora joan, eta goitik behera ibiltzen naiz, kotxez eta oinez, detaile txikiena ere buruz ikasten. Peritasa, behin, Bartzelonan jokatutako txapelketa baten 1.000 km egin nituen kotxean zirkuitoa gora eta behera errepasatzen, eta gero oinez lau aldiz igo eta jeitsi nintzen.

Dena buruz ikasi nahi izaten da gero gauzak automatismoz egiteko.

Ez al duzu inoiz beldurrik sentitzen?

Noski baietz; eta beharrezkoa da gainera. Jode, pasa den urtean, Asturiasen, errepidetik irten nintzen hegaz, eta airean nindoala parean jarri zitzaizkidan zortzi eukaliptuak erdibitu nituen. Gero, buelta mordoa eman;



begiak itxita. Kotxea gelditu zenean, depositoa hautsita, ni buruz-behera, gasolina tantoak erortzen zitzaizkidan gainera. Ezin nintzen mugitu, eta horrela nengoela, txispa batek salto eginez gero bertan hilgo nintzela okurritu zitzaidan. Zer izan zen hura! Oraindik ere ezin dut esplikatu nolatan irten nintzen bizirik!

Bost minutu horietan

izugarrizko beldurra pasanuen; baina handik irten bezain pronto, beste kotxe bat hartu eta zirkuitoan gora igo nuen berriro, horixe bait da beldurraren kontrako medikamenturik onena.

Zenbat aldiz pentsatu du Aitorrek kotxeen mundua bertanbehera uztea?

Askotan. Batez ere diru arazoak etortzen direnean,

dena utzi eta mekanika-tailer bat zabaltzeko gogoia sentitzen dut; baina...

Zein da kotxeen munduan bizi izan duzun unerik goxoena?

Duela bi urte Jaizkibelego Igoera irabazi nuenean. Zoragarria izan zen.

Eta txarrena?

Joan zen urtean, Jaizki-

Aitor versus Luis Martinez

Auskalo nolakoa den Luis Martinez; baina Aitor Zabaleta eta Andres Vilariñok behintzat ez diote estima haundiegirik!

Luis Martinez Goardia Zibila da. Arazoa ez da hori, ordea. Duela urte batzuk Gorko Igoerara etorri zenean, hori ahaztu eta Aitorrek kirolari bezala onartu zuen. Bere etxera eramanean zuen.

Hurrengo denboraldian, ordea, Espainiako Txapelketa Pantxo Egozkue eta Luis Martinezen artean zegoen. Azken proba heldu ziren. Martinezek derrigorrezkoa zuen garaipena eskuratzeko. Ekin diote probari, eta Egozkuek istripua izan zuen.

Aitor ere proba korritzen zegoen. Profesionala da, eta horrexegaitik garaipenaren bila irten zen. Gainera, ze demontres, nahiago zuen euskaldun batek irabaztea kanpotar batek baino.

Probaren amaieran Aitor Zabaleta izan genuen garaile, eta bide batez, Pantxo Egozkuek txapela lortu zuen.

Luis Martinez, galtzaile txarra, erreklamazioak egiten hasi, eta nahiz eta ezer gutxi lortu, Aitorri lege onez irabazitako 750.000 kendu zizkioten.


Aitorrek ez dio hori barkatu. Eta duela hamabost egun, mendekuaren ordua heldu zitzaion. Martinez Castellonekoa da. Bertan jokatzen den Desierto de Palma proban, Martinezen etxean, Aitorrek probaren errekorra birrindu zuen.

belen, irabazteko aukera guztiak eskuan eduki eta tontamentian galdu nuenean...

Eta bestela, Krafft-ek aurtengo denboraldirako diru-laguntza ederra eskaini eta azken orduan atzera egin zuenean... mundua gainera erori zitzaidan!!

□ Zer esango zenuke Andres Vilarioni buruz?

Andres. Andres. Pilotu moduan onena da. Benetan nekeza da hari irabaztea. Nik beste pilotu guztiak gainditu ditut bera ezik. Harek dauka maila, harek.



Eta gidari moduan onena izateaz gain, pertsona moduan ere parean tokatu zaidan bikainena da. Beti laguntza eskaintzen, beti dakiena erakusten. Askotan esaten diot tontoa ere badela gero! Jakin errepidean gu bere etsaiak garela, eta halere barruan daukan guztia eskaini digu! Zenbat pieza utzi dizkidan, zenbat mesede egin. Sarritan joan izan behar izan dut italiaraino, Andresen mekani-koengana, hemen ez zegoe-lako inor nere kotxea konpontzeko gai zenik. Eta ez hori bakarrik. Joan den denboraldian, kotxea izorratu eta Andresek berea utzi zidan, errepuestokoa, Jaizkibelen korritzeko. Arrateko igoeran istripua eduki, eta halere emandako hitzari eutsi zion. Errepuestoa neri laga eta ez zuen Jaizkibelen konpetitu.

Andres Vilarioni; txapela kentzeko moduko gizona!

□ Hitzegin dezagun aurtengo denboraldiari buruz. Orain arte ederto doakizu. Zeintzuk dira zure asmoak?

Bai, ederto ekin diot denboraldiari, Espainiako Txapelketako bi proba jokatu dira, eta bat irabazi eta bestean bigarren gelditu nintzen.

Asmoak? Euskadiko eta Espainiako Txapelketak irabaztea.

□ Eta etorkizunari begira?

Aurten Espainiako Txapeldun izanez gero, EMEC-ek datorren urtean Europako Txapelketa korritzera joango garela esan dit.

Baina poliki joan nahi dut, eskailerak banan-banan igotzeko. Hor dago Andres, eta bera erretiratu baino lehenago Europara irten nahiko nuke. Zergatik? Berak zirkuito guztiak ezagutzen dituelako, tramo bakoitza, kurba bakoitza... lagunminak gara, eta bera European dabilen bitartean joanez gero denbora asko irabaziko nuke. Bestela, berak dakien guztia nik neure kasa ikasi beharko banu, bizpahiru urte beharko nituzke!

Asmoa hori da, baina mundu honetan amets guztiak bertanbehera gelditu daitezke gauek goizera. Ea hau behintzat gauzatzen den!

□ Eta bukatzeko, Aitor, zer esango zenioke kotxeen munduan hasteko gogotan dabilen edonorri?

Animoak emango nizkioke, egin dezala proba, hobe delako indarrak neurtu eta gero erabaki, beti irrikaz egotea baino.

Eta zera ere esango nioke: laguntzarik behar izanez gero, etorri dadila, guk ahal dugun guztia egingo dugula, gure esku dagoen guztia eskainiko diogula.



Vilariñok diño

Aitor Zabaletari buruz dudan eritzia galdetu didazue. Ondo. Aitor izugarritzko *amor-propioa* duen mutila da, eta borrokalaria, sekula etsitzen ez duen horietakoa. Ikusi besterik ez dago noraino igo den hain diru gutxi eukita.

Agian zera falta zaio: manager edo antzeko bat, harreman publikoak behar bezala landuko dizkion konfidantzazko norbait, esponsorizazio hobeak lortu eta Europara irtetzen hasteko.

Azken hiru urteetan ederto ibili da; gaur egun, Iñaki Goibururekin batera Euskal herriko piloturik onena dela uste dut.

Nik beti lagundu izan diot ahal izan dudan neurrian, tipo jatorra iruditzen zaidalako, eta batez ere, ez didalako inoiz hutsik egin. Beste pertsona batzuk eurengan jarri dudan konfidantza traizionatu dute. Aitorrek ez. Beti iruditu izan zait *eduki beharrekoak ondo jarrita* dauzkan mutila dela.

Izugarri gustatuko litzaidake Europako Txapelketara nerekin etortzen hasiko balitz. Asko erakutsiko nioke, dakidan guztia; eta bestela, bakarrik joanez gero bizpahiru urte beharko lituzke truko eta trikimaña guztiak ikasten. Ea animatu eta diru-laguntzak lortzen dituen!

Aitorrek ez dit oraindik proba bakar batean ere irabazi. Baina laister helduko da eguna. Ni bezain ona da. Beharbada nik esperientzia gehiago daukat, eta kotxe hobea. Baina laister helduko zaio ni baino azkarragoa izateko ordua.

Igandean Jaizkibelen ikusiko dugu berriro elkar. Ea eguraldi ona egiten duen, Euskal Herriko zaletuek probarekin gozatu dezaten; gutxitan egongo bait da hain maila altuko karrera bat ikusteko aukera!

Jaizkibel nere etxea da, Aitorrentzat Gorla den bezala. Edozer emango nuke igandean irabaztearren.

Dena den, ez badut helburua lortzen, Aitorrek irabaztea nahiko nuke. Benetan.

Eta hori bai. Ez dezala gero Luis Martinez horrek garaipena lortu, tipo horrek ez bait du ezer merezi.

Ezta, Aitor?

ANTIA HARATEGIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri
bildots, untxi
baserriko oilaskoak

Matsiategi Tfnoa: 76 15 09 BERGARA

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea
Tfnoa: 76 43 07

Mujika
Tantzidenda

BARRENKALE, 1 BERGARA
Tfnoa: 76 29 91

ETXE-
-AUNDI

Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

ZUNBELTZ
Kafetegia

S. Arrieta Enparantza
BERGARA

MAHER
BILTEGIAK L. E.
Oihal etxea

Bidekurutzeta 29, Tfnoa: 76 22 90
BERGARA 76 26 75

Zer iruditzen zaizu Jaiak heldu eta zenbait jendek herritik kanpo alde egitea?



Nagore Larrañaga
28 urte

Nik uste hobeto litzatekeela jendea herrian gelditzea. Bestela, denok alde egiten badugu, zer nolako jaiak izango lirarteke?



Igor Oruesagasti
17 urte

Normalean jende heldu akegiten du alde, eta ondo iruditzen zait, festak batez ere gazteek pasatzen dituztelako ondo.



Jose Mari Lete
68 urte

Batzuri ondo etortzen zaie, eta beste batzuri ez; hori bakoitzak ikusi behar du, baina nik nahiago nuke jendea herrian geldituko balitz.



Sorkunde Agirregabiria
38 urte.


Herriarentzako kaltegarria da, baina bakoitzak ikusi behar du jaiak nola aprobetxatu nahi dituen.

AE ELKORO
ANTENAK



. TB Satellite bidez
. Telebanaketa

ARRASATE Tfnoa: 79 18 86



Kukua eta hauteskunderarako promesak

“Kukua” martxoaren azken aldera agertzen da gure basoetan. Aurten, ordea, eguraldiagatik, piska bat beranduxeago heldu da. Bere kantua apirila nahiko aurreratuan entzun dugu. Baina hementxe da. Eta bere kantua poltsikoan txanponen bat duzularik entzun baldin baduzue, ez duzue diru faltarik izango urtean zehar. Hori esaten du behintzat herri jakituriak, tradizioak. “Kukua”, nolabait, ondasun, ongizate eta itxaropenaren mezularia da.

Ongizate eta itxaropen berdintsuko edukizko mezuak ere entzuten ditugu maiatza honen barrena hauteskunde hauetarako hautagai desberdinen bidez. Udaberriko lorak bezain agindu koloretsuak. “Kukua”ren kantu triste eta berdintsua bezain etengabeak.

Egun batzuetan behintzat txoritxo ilun hauek eta politikoak era berean entzuten aukera izango dugu. Baina, zer gertatuko da ondoren? Ez dadila gerta aldi batez Juan Ramon Jimenez poetak idatzi zuena: “kirkilaren kantua, horrenbeste joteaz itzali egin da”.

Ez gaitezen ezkorrak izan, eta pentsa dezagun herri esaera “kukuaren” aldeko den antzera, politikoek ere herriak beraiengan jartzen duten konfidantza mantendu egingo dutela.

“Kuku” eta politikoak gure artean ditugu dagoeneko. Bietan jartzen ditugu gure esperantzak.

Juan Luis Bikuña



Penarik eza zoriona al da?

Berrigararen sail honetarako zerbait idazteko esan zidatenean “Oraingoan behintzat, ez dut euskarari buruz ezer kontatuko” esan nion neure buruari. Enkargua eman zidateneko unetik paper aurrean jarri naizen unera, hasierako asmoa ahaztu behar izan dut, tartean Udal Plenoa burutu bait da.

Plenoko gai zerrendan, beste batzuren artean, Euskara Batzordearen eskakizuna: bileratako aktak bilera egin den hizkuntzan jasotzea, hau da, euskaraz hitzegindakoa euskaraz idaztea eta eskatzen zutenei, gaztelerara itzuli.

Eskaerak, bakarrik HBren adostasuna lortu zuen; gainontzekoek ezezkua eman zioten. PNV, EA eta EEK ziotenez herritar askok ez daki euskaraz hitzegiten. PSOE urrunago joan zen, eskabidea gaztelaniari eraso zikina egitea zela esanez.

PSOEek euskararekiko duen amorrua ezagututa, ez da arraroa aipatutako erantzuna ematea, besteena bai ordea. Herritar askok euskara ez jakitea, euskararen aldeko neurriak hartzeko oztopoa izan behar da? Bere burua euskalduntzat daukaten alderdientzat, ez da zuzenagoa arrazoi bera euskararen alde egiteko erabiltzea?

Beharbada ez da horrela izango, baina PSOEn ezeztak eta gainontzekoenak gauza bera adierazten dute.

Penarik eza ez da zoriona, baina izan daiteke; euskararen alde ez agertzea aurka egotea izan daitekeen moduan.

Beñardo Kortabarria

MABER GIMNASIA-ETXEA

Kulturismoa

Mantenimendu gimnasia eta zuzenketazkoa

Edozein kirol egiteko pisu-sistema egokiak

Sasoian egoteko behar dituzun makina eta pisu mota guztiak

URTE ASKOTAKO ESPERIENTZIA!

Zuzendaritza: **MARTIN BERROYA EGAÑA**

(Euskadiko kulturismo txapelduna)

Koldo Elizalde 16, Behea

Tfnoa: 76 56 17

BÉRGARA

Zeuk galde

Hemendik aurrera orrialde honetan atal berri bati emango diogu hasiera.

Bertan irakurleok egiten dizkiguzuen galderei erantzuten saiatuko gara,


Egizkiguzu zuk galderak, osasun, inpuesto, lege, edo etxe nahiz kotxearen inguruan, edo... halako mantxa nola kentzen den edo... lagunarekin izan duzun diskusioan arrazoia nork duen edo... nahi duzuna. Zuk galdetu eta gu ahaleginduko gara lehenbailehen erantzun egokia ematen.

Berrogeitabost urte ditut eta kojua naiz eta esan didate horregatik Errenta Deklarazioa egiterakoan, desgrabatzeko eskubidea dudala. Hori ala da?

Zu kojua bazara eta elbarri edo minusbalidotzat jo bazaituzte, Errenta Deklarazioan 47.600 pzta. deskontatzeko eskubidea daukazu.

Horretaz gainera, lana egitera etxetik kanpora joan behar baduzu, beste deskontu bat ere lortu dezakezu. Normalean, edozein pertsonak Errenta deklarazioan %2ko deskontua izaten du Laneko Irabazien apartadoan. Zuk %10eko deskontua (200.000 pzta.rarte izango zenuke.

Baina badakizu, minusbalido deklaraturata egon behar duzu. Badago jendea elbarritasunen bat izan eta gauza haundirik ez daukala pentsatuz minusbalido deklaraturata eskatu ez duena. Zu horietakoa bazara, onena Udaleko Gizarte Laguntza Zerbitzura etortzea duzu eta bertan emango dizugu informazio zehatzagoa. Tramitazio guztia ere bertan egiten dugu.



Kanario bat daukagu etxean eta aspalditxotik bere kaka jaten du. Zerena izan daiteke hori?

Ez da guztiz arraroa txoriek beren kaka edota beren lumak ere jatea. Horretarako arrazoia, normalean, bitamina edo mineral falta izaten da.

Halakorik ez gertatzeko, komeni da urtean zehar jana aldatzea: alpistea bakarrik eman gabe, kañamoa eta mijo ere ematea.

Behin gaitza hartuz gero, pentsu dendatan egoten dira pastila edo hauts batzuk bitaminak emateko.

Elbarria edo minusbalidoa naiz eta jakin nahi nuke ea kotxearen zirkulazio zerga ordaindu beharrik dudan.

Bergarako Udalak ez die zirkulazio zergarik kobratzen elbarri deklaraturata egon eta kotxe jabeak direnei.

Hori da Bergarako Udalaren jokabidea. Dena dela, legeak eskubide hori automobila beretzat apropos preparamatuta duten elbarriek bakarrik ematen die.

Beraz, badakizu, elbarri deklaraturata bazaude, Bergaran ez duzu zirkulazio zergarik ordaindu beharrik.



LAN KIDE AVRREZKIA

**Aldi baterako Ibargarai 2ra joan gara.
Bertan izango gaituzue zuen zerbitzura.
BARKATU OKERRAK.**



✓ **Kilometroak 91rako abesti ofizialaren egileak**

Argazkian agertzen den bikotea dugu Bergaran antolatuko den *Kilometroak 91*rako abesti ofizialaren egileak. **Izaskun Labaienek** musika landu du (Jesus Mari Sagarna eta Rosa Narbaizaren laguntzaz); **Juan Martin Elexpuru**, berriz, behean ekartzen dizuegun letraren egilea izan dugu. Irakurri, eta hasi entrenatzen:

I

*Kilometroak dira ta
kale zelai ta aldapa,
gure hizkuntza ibili dabil
tipi tapa tipi tapa.*

III

*Aiton-amonak begira
badatorrela segida
irribarrea ezpainetara
negar malkoak begira.*

II

*Udazkenean orbela
hegoaizetxo epela
euskararentzat esan liteke
udaberrian gaudela*

IV

*Intxaur piku ta gaztaina
Ai zein inguru apaina
aldapan gora doan euskarak
laster hartuko du gaina*

✓ **Migel Okinaren erakusketa**

Ostiral honetan bertan zabalduko da Kultur Etxean Migel Okinaren pintura erakusketa.

66 urte, 1945ean ekin zion pintatzeari, lehenengo maixua Simon Arrieta ezaguna izan zuelarik. Ondoren, Paris, Madril eta Bartzelonan ibili zen bere kasa ikasten.

360 bat erretratu landu ditu bere bizitzan zehar, guztira 2.000 koadro inguru egin dituelarik (paisaiak, bodegoiak, etab). Ostiralean zabalduko duen erakusketan, 27 obra izango ditugu ikusgai.



Zertan dihardute ba?

RICHAR CUEVAS



19 urteko antzuolarrak, igandean Anoetan antolatutako Euskadiko Trikitilari Bikoteen Txapelketa Nagusian 3. postua eskuratu zuen, Aitor Epelde azkoitiarrarekin batera. Irabazleak Zabale anaiak izan ziren.

COLETTE DESCAMPS



28 urte, Bruselasan jaioa, bi urte daramatza Bergarako Musika Eskolan biboliña irakasten. 4 urterekin ekin zion musika lantzeari. Larunbatean, goizeko 10etan, bibolin emanaldia eskainiko du Musika Eskolan, bertako ikasle eta gurasoentzat.

ederTu

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnoa: 76 29 65

BERGARA

TOKI-EDER

Taberna


Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi Tfnoa: 76 51 84 BERGARA

Hau dok barreguria

Munduko nagirik haundiña be plazentziarra zan. Karakolzale amorratua bera. Behin, karakoletara joan zan baten zazpi karakol ikusi zittuan eta bost harra-pau. Bik ihes.

Beste behin, taillerrian.



biharran zebilela, bere pare-kerro argixa erre jakon. Ekulondua dornu gaiñian jarri, ekubilla okotzian, eta geldi. Laster entzun zeban uhezabaren diarra.

- Zer, eztaok ezer eitteko asmorik, ala?

- Argi barik nago.

- Ba alper usaiñok kendu ta mogidu hari, ia bonbillia erreta dagon ala zer!

- Ez naiz baiña bonbillara ailegatzen.

- Hori be bajuau memeluoi halakuoi! Igo hari nere bizkarrera.

Igo zeban alperren

erregiak uhezabaren bizkar gaiñera eta esan zeban.

- Erreta dago. - Eta geldi geratu zan bonbillia eskuan hartuta.

- Zeri begira hago? Soltaik pa soltau!

- Baiña harixan dago.

- Eta zer?

- Ba soltauo bada zeuk bueltak emoteko zaiñ nago!

(“Eztenkadak”etik moldatua)

Basarriko bi aitta-seme mondrauetarrek akzidentia euki eben autuakin eta aitta hil eta semia grabe. Beste seme bat geldittu zan basarrixan kargu eta hau anaia bisittatzera joan zan Zentro-ra. Han topau eban ohian, zelabaitt, eta hola berba egin zotsan.

- Hiltzen bahaz (ez haz hilgo baiña), zerura joaten bahaz (ez haz joango baiña), han aitta topetan bok (eztok topauko baiña), preguntai-xok aber nun ostia gorde zittuan astuan kaberezarak!

J. M. Elexpuru

Ezkioko agerpenak (3):

(Lekuko baten testigantza)

“Ni Ezkogon izenda nago...”



Francisca Olañeta. 1906an Angiozarko Zabaleta Gaiñekuan jaioa eta Altunan bizi izana. Gaur egun Angiozarko kalean bizi da.

“Neuk pe fedia euki neban ba Balentin Berriotxoan. Gero beste batzuk urtetzen dabe ta. Santu barrixak urtetze dabe ta. Bestiak ahaztu eitten die. Nik e San Antonioi neukan gaztetan, da geruao be bai, bueno gerra osterarte be bai. Baiña gero eztaikitt pa nok kendu oskun harendako deboziñuoi. Gero Amabirjiñiana sartu oskuen eta San Antonionai atzera erañ oskuen. Baiña aurretik nik ezer falta baneban enintzan fango bestegana billa e. Ni San Antonio-

ana. Harek zuzentzen zittuan gauzak. Da ointxe be bai.

Ni Ezkogon izenda nago. Ezkiogara fuaten zan jentetan! Zenbat autobus. Inguruko solo guztiak egoten zien kotxez tapauta. Eta txoferrak danak ikusten ebela ba. Txoferrak e, duro biña kobratzen eben. Hemendik bat, duro bat kobratzen eben. Nikolas ibiltten zan jentia karriatzen.

Gu sei fan giñan. Nik eta beste bik zerbait entzun giñuan. Ikusi ez, ikusi ez giñuan eiñ ezebe. Erresaixua errezatzen da agertzen zala Amabirjiñioi. Bagare han. Halako baten, e, fiuuu, halako zaratatxo bat. Da hola laiño beltxo bat. Nik Ixabeli beitu notsan albora ta, Bidalek pe beitu oskun guri, guk pe bai berai, tta. Orduan etorri giñan gu etxera seguru badauela.

Da urrengo fan giñanian e, “Madre de noche, Madre de Sevilla, Madre de Andalusia”, da hango zaratia. Hilddakuan moduan e, goititik bera, hilddakuan moduan gogor-gogor eindra. Beste mutil bat hiru haritxoi begira, ta Ataungua zala mutilloi. Honek zeoze bajaukek pa... (jarraituko du).

“Bergarako Euskera”tik hartua

I
Z
O
Z
K
I
A
K

i
Z
A
R
H
O
T
Z

I
Z
O
Z
K
I
A
K

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



✓ Mendiko motorren proba

Ekologista eta motorzaleen artean tira-bira ugari egon ondoren, azkenean Bergara-Bergara Mendiko Motorren X. Trabiesa igandean jokatu da. Izena eman duten Bergara eta inguruetak 150 motorzaleak goizeko 8etan bilduko dira Igerilekuetan, lau orduetan 115 km.ak betetzeko. Eguerdiko ordu batean, bestalde, trial exhibizioa egingo da igerilekuetan.

Eztabaida garrantza sortu da probaren inguruan. Duela gutxi, Udalak horrelako probak bergarar motorzaleei mugatzea erabaki zuen (sortzen diren kalteak direla eta), kanpotarrei parte hartzea debekatuz. Badirudi, ordea, igandean ez dela baldintza hori errespetatuko. Hala eta guztiz ere, jokatu egingo da, azkenengo edizioa izan badaiteke ere.



✓ Triatloiar buruz jarduten

Benetan interesgarriak izan ziren *Jardunek* eta Udaleko Kirol Zerbitzuak triatloiar buruz antolatutako hitzaldiak.

Asteartekoan **Dina Bilbao** eta **Txiki Plazasek** nahi beste xehetasun eman zituzten **Ironman** edo **Hawaiko triatloiar** buruz, bideo eta diapositiba emanaldiez baliatuz. Asteazkenean **Entrenamentua eta dietetika** gaia aztertu zuten **Antxon Gorrotxategi** eta **Alejandro Altuna** kirol medikuek. Jende ugari bildu zen bi hitzaldietan; seinalea triatloiak geroz eta zaletasun haundiagoa pizten duela.



✓ Futbol Taldea mailaz jeitsi

Preferente mailako futbol denboraldia amaitzeko oraindik hiru partidu geratzen badira ere, Bergara Futbol Taldeak maila galdu duela konfirmatu da, eta datorrenean *Primera Regionalean* jokatu beharko du. Alex Garitano, C. D. Bergara Elkarteko presidentek azaldu zigunez, denboraldia lehen bait lehen amaitzea baino ez dute nahi, hurrengoari begira lanean hasteko.

Aurten Bergarako jokalariekin jokatu duten arren, datorrenean kanpotik hiruzpalau fitxaje ekarriko dira, ekipoa dauden hutsuneak betetzeko.

Hamalau urte joan dira Bergarak azken aldiz *Primera Regionalean* jokatu zuela, orduan entrenatzailea *Mondraue* ezaguna zelarik.

Egun tristeak, beraz, Taldea osatzen duten guztientzat (jokalaria, entrenatzaile, zuzendari eta zaletu). Ea denon artean ekipoa ahalik eta azkarren merezi duen mailara jasotzen duten!!

□ Skate exhibizioa

Larunbat honetan, eguraldiak laguntzen badu, Skate Ihardunaldia antolatuko da Poligonoko pistan. Goizeko 10etan hasita, Bergarako neska-mutikoentzako txapelketa, eta Euskadiko Skate-zale onenen erakustaldia izango ditugu.

Txapelketan parte hartu nahi duzuenok, larunbatean bertan eman dezakezue izena.

□ Mendi diapositibak

Asteazkenean, hilak 15, arratsaldeko 7.30etan, Jon Lazkanok Chileko Patagonian ateratako diapositiben proiektzioa emango du Kultur Etxean. Sarrera debalde izango da.

Gogoratu Jon gabonak aldera joan zela Patagoniara, eta *Torres del Paine* izeneko gailurrean bide berria zabaltea lortu zuela.

IGERILEKUKO

TABERNA

EGUNEKO MENUA
AURREZ ESKATUTAKO
AFARIAK

Tfnoa: 76 53 55

EXLIKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62
BERGARA



KONDE
PANADEROKUA
Burdinate 1
BERGARA



Famatuak, bere garaiari, argazkian agertzen diren hirurak ere: Luis Laskurain, orduko Alkatea; Florita Txintxurreta eta Blanco txirrindularia.

Baina, benetan famatua zena, itxuraz, Florita zen. "La Voz de España"n agertzen den berri batetan esaten denez, bera omen zen "La más gentil madrina de los chirrindularis guipuzcoanos".

Erretratu hau egin zen eguneko karreran, San Antonioko proban, honako hauek izan ziren sariak: Otsein kalentadorea (3.492 pzta. balio zituena), Otsein labadora (3.100 pzta), butanozko radiadorea (650 pzta) eta Floritak emandakom urrezko kataia eta domina.

"La Voz"en agertzen den beste albiste batetan Luis Otañok eta Ramon Mendiburuk Bergarara ("a la 'meca' del ciclismo vergarés) egin zuten bisita baten berri ematen digu Alustiza korresponsalak. "La Parra" jatetxea sonatuak ("sede de la más gentil 'madrina' de estos sacrificados 'routiers'") afari-merienda bikaina eskaini zien eta apetito ederraz jan omen zuten.

Berriaren amaieran esaten zaigu Martutene eta Erreteriatik ere eskursio berriak egitekotan direla "La simpática Florita" bisitatzera.

Estepan Plazaola



jolas



Jaunartzeetarako...
ZURE OPARI DENDA

BARRENKALE 27

Oharra:

Orrialde honetan iragarkiak ez dira ordaintzen.



ETXEBIZITZA

• Pisua ederra salgai Iri-
zar pasealekuan. Deitu
761708 Tfnoa.

• Pisua salgai edo alo-
kairuan. Polita eta amue-
blatua. Deitu 762916
Tfno.ra, 21etatik aurrera.

• Pisua behar dut alki-
lerran. Tfnoa: 764255.

• Pisua behar dut alo-
kairuan. 765837.

• Pertsona bat behar du-
gu Mizpildin pisua osatze-
ko. 765837.

• Pisua salgai Koldo
Elizalden. Tfnoa: 765823.

• Pisua alkitatzen da
Bolun. Tfnoa: 763797.

• Pisua salgai Olan,
konpondua eta amuebla-
tua. Modu onean. 761669.

• Soto eta garajeak sal-
gai Martokuan. Tamainu
ezberdinetakoak. 761078.

• Pisua salgai; garaje
eta guzti. 763911.

• Baserria alokatu nahi
dugu Bergaran. 763431.

• Pisu edo buhardilla
hartuko genuke alokairu-
an. 764735.

LANA

• Andra edo neska eus-
kalduna behar da bi haur
zaindu eta etxeko lanak
egiteko. 765141.

DENETARIK

• Ihauterietan galdu-
tako argazki kamara ba-
daukazu. Deitu: 763270.
Sarituko da.

• IPUIN dendaren albo-
ko lokala alokatzen da.
Galdetu Ipuin-en.

SALDU-EROSI

• Soinu bat salgai. Deitu
764195era.

• 28 urteko pinudia sal-
gai. Terreno eta guzti. 76-
1201.

• Yamaha 250 SR oso
egoera onean salgai. Deitu:
862071era.

• SANSUI 7900 anpli-
fikadorea salgai, plato se-
miautomatiko eta bi soinu
kaja oparizat. 20.000 pzta
dena. 762852.

• Salgai ski eta bizi-
kleta eramangailua; bi lo-
karri, eta erretenarekin
762852.

• Egoera onean dagoen
R-6 GTL bat erosiko nuke.
770940 (lanorduetan).

• Karrerako bizikleta
polita eta arina salgai. Ez
da garestia. 763269.

• *Reflecta Diamator AF*
diapositiba proiektorea
salgai. 762230 gaueko 9re-
tatik aurrera.

• Kolore biziko MBK
mendiko-bizikleta berri-
berria salgai. 765580.

Hildakoak

Fabiano Pinedo Ullibarri

86 urte, maiatzak 7an

Domingo Fernandez Turnidor

70 urte, maitzak 9an

BERRIGARA

Eskatu eta etxean

76 03 97

ALDAI

Harategia

Espaloia 12, Tfnoa: 76 33 35 BERGARA

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

BERGARAN JAIALDIA

Eguna: **Maiatzak 17**

Tokia: **Herriko Pilota lekuan**

Ordua: **Gaueko 10etan**

Sarrera: **500 pzta.**

CARLOS MEJIA GODOY
y los de PALACAGÜINA**BERGARAKO UDAL JAI BATZORDEA**